

GAIA: KALEZ KALEKO SALMENTARI BURUZKO ORDENANTZA BERRI BAT EGITEAREN HARIRA EGINDAKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEAN AURKEZTUTAKO EKARPENEI BURUZKO TXOSTENA

EGITATEZKO AURREKARIAK

I.- 2022ko urriaren 19tik azaroaren 3ra arte zabalik egon da ekimenak eragiten diela uste duten herritarrek eta elkarte ordezkagarriek kontsulta publikoak egiteko eta ekarpenak helarazteko izapidea.

Izapide horretan azaldu zenez, proiektu berriaren funtsezko alderdiak honako hauek izango lirateke: kalez kaleko salmentaren udal-ordenantza eguneratzea eta arlo horretan aplikagarria den egungo lege-esparrura egokitzea, bai eta udalerriko errealitate sozioekonomiko berrira egokitzea ere, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko, besteak beste, lehen sektoreko (nekazaritza-sektoreko) produktuen aldizkako merkatu berri bat ezartzeko eskaerari erantzuteko.

II.- Zuegaz plataformaren eta Getxoko Udalaren webguneko Administrazio Elektronikoaren Bulegoan eskuragarri dagoen erregistro telematikoaren bidez, guztira, banakako 19 ekarpen aurkeztu dira, eta horietatik 8 elkarrekin bat datoz. Ekarpeneak multzokatuz gero, honako eduki hau duten 11 ekarpen zehaztu beharko lirateke:

1) P.F. eta I.G.P.-k honako alegazio hauek egin dituzte:

a) “2.- 2. artikulua aldatzeko proposamena:

Honako hau esaten den lekuan:

2. artikulua. Bidesalmenta zer den. Bidesalmenta deritza pertsonaren batek edo elkarteren batek egindakoari, merkataritzako jardueran ohi bezala edo inoiz edo behin aritzen dela establezimendu jakinetik kanpoan, bai bideko saltokitan edo instalazioaldagarritan eta bai ibilgailutan. Bidesalmenta jardun ahal izatekotzat **udal baimena** premiakoa da, inori aldatu ezindakoa dela eta urtebete gehiena dirauela.

Honako hau esatea:

2. artikulua. Bidesalmenta zer den. Bidesalmenta deritza pertsonaren batek edo elkarteren batek egindakoari, merkataritzako jardueran ohi bezala edo inoiz edo behin aritzen dela establezimendu jakinetik kanpoan, bai bideko saltokitan edo instalazioaldagarritan eta bai ibilgailutan. Bidesalmenta jardun ahal izatekotzat **udalari jakinaraztea** beharko du, inori aldatu ezindakoa dela eta urtebete gehiena dirauela.

Salmenta hainbat motatako kasuetan errazteko”.

b) “3. artikulua aldatzeko proposamena:

3.- “Bidesalmentaren motak.

Honako hau esaten den lekuan:

a) Aldian aldian egindako merkatuak, nunbait leku jakinen batean paratutakoak; indarrean dauden arauak agindu bezala, asteen **egun bitan** baino ezin egingo dira gehienez.

Honako hau esatea:

a) Aldian aldian egindako merkatuak, nunbait leku jakinen batean paratutakoak; indarrean dauden arauak agindu bezala, astean **lau egunetan** baino ezin egingo dira gehienez.

Horrela, kateatutako egunak luzatzeko aukera egongo da, asteburuan zehar egiteko aukera emanez.”

c) “4. artikulua aldatzeko proposamena:

4. artikuluari proposatutakoa gehitzea.

4. artikulua. Behin-banango merkatuak, leku jakinetan paratutakoak.

1. Merkatu-mota horretakoak dira kalez kaleko salmenta egiten den **hamar postuko edo gehiagoko** kontzentrazioak. Maiztasun finkoz egiten dira eta bide publikoko espazio jakin batzuetan jartzen dira.”

d) “4. artikuluko 2. puntua ezabatu”.

e.1) “7. artikulua aldatzea eta puntu bat gehiago gehitzea:

f) Ekoizpen propioko elikagai-postuak (abelzaintzako eta nekazaritzako produktuak)”.

e.2) “11. artikulua aldatzeko proposamena.

Honako hau esaten den lekuan:

11. artikulua. Salgaiak.

2. Debekatua dago jatekoak kalean saltzea; baimenduak daude, halere:

a) Barazkiak eta ortuariak **herri-azoketan**.

Honako hau esatea:

a) **Baratze- eta abere-elikagaiak**”.

f) “15. artikulua aldatzeko proposamena.

Honako hau esaten den lekuan:

II. kapitulua: Udal-baimenak:

15. artikulua.

Baimena interesdunak aurretik eskatuta eman edo erauki egingo da eta Udaleko Alkatetzara bidalitako **eskaerako idazkian** agertuko dira:

Honako hau esatea:

15. artikulua.

Baimena lortzeko, interesdunak udaleko alkateari aldeztu aurretik **jakinarazi** beharko dio. Jakinarazpen horretan honako hauek jasoko dira:”.

g) “17. artikulua aldatzeko proposamena.

III. kapitulua: Prozedura.

Honako hau esaten den lekuan:

17. artikulua.

Eskaera bidezko dokumentuekin batean **jasota**, dokumentu hoiek eta, baldin balira, manuzko txostenak aztertutakoan, udal órgano agintedunak, erabaki egingo du baimena eman ala eman ez.

Honako hau esatea:

17. artikulua.

Dagozkion dokumentuak jaso ondoren, udaleko organo eskudunak eskaera ebatziko du, eta baimena eman edo ukatuko du hurrengo **5 egun baliodunetan** (P.F.-k egindako proposamenaren arabera) edo hurrengo **15 egun baliodunetan** (I.G.P.-k egindakoaren arabera). **Epe hori igarota, administrazio-isiltasuna positibotzat hartuko da**”.

h) “21. artikulua aldatzeko proposamena:

Honako paragrafo hau ezabatu:

“Beste aldetik, titular bati baimen bakar bat baino ez zaio emango inondik ere, bidesalmentan epe batean egin nahi badu”.

2) I.G.P.-k honako ekarpen hau egin du:

i) “Nire ustez, oso garrantzitsua da, bai nekazari eta abeltzaintzat, bai saltokientzat, **nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen kalez kaleko salmenta ekoizleei bakarrik baimentzea**”.

3) E.G.G.:

“Prozesu partehartzailearen azken orduak izanik eta aurretik prozesu honen epeetaz inundik be berririk ez jasota, neu E.G.G., baserriko produktuen ekoizle, hainbat urtetan zehar hostalaritza zerbitzuak Getxon profesionalki eskeinita ta U.K.Agaz elkarlanean, gai honen inguruan ardura ta interesa adierazi gura dut bertoko elikagai osasuntsuen bendejak legalizatzea proposatuz; ekonomia herrikoi, sentsudun, logiko eta biribil bat bultzatzeko asmoekin.”

4) L.L.L.:

“Prozesu partehartzailearen azken eguna izanik, eta aurretiaz enteratu ez garenez, neu L.L.L.,baserriko produktuen ekoizle eta bendeja egiten duen honek, eta U.K.Ako kidea(eskualdeko 6 ekoizle alkatzen gaituena) gai honen inguruko ardura eta interesa adierazi gure dot/dogu. Bendeja euskal herriko eta gure inguruko kultur eta patrimonio izan da betidanik, eta akabuko urtetan egon dan jarraipen, debeku eta mehatxuen arduragabekeria mahai gaineane...”

Alegazio hori osatu gabe dagoela dirudi, eta, era berean, ez du proposamen zehatzik egiten. Hori dela eta, ezin da aztertu.

Getxoko Udalaren webguneko Administrazio Elektronikokoaren Bulegoan eskuragarri dagoen erregistro telematikokoaren bidez, L.L.L.-k, 2022ko azaroaren 8an, bigarren erregistro bat egin

zuen, aurreko alegazioa osatzeko. Hona:

“GETXOKO UDALERRIAN KALEZ KALEKO SALMENTARI BURUZKO ORDENANTZA BERRIA EGITEKO KONTSULTA PUBLIKOA.

Prozesu partehartzailearen azken eguna izanik, eta aurretiaz enteratu ez garenez, neu Lander Labajo Laradogoitia, baserriko produktuen ekoizle eta bendeja egiten duen honek, eta Uribe kostako agroasanbladako kidea (eskualdeko 6 ekoizle alkatzen gaituena) gai honen inguruko ardura eta interesa adierazi gure dot/dogu.

Bendeja Euskal herriko eta gure inguruko kultur eta patrimonio izan da betidanik, eta akabuko urtetan egon dan jarraipen, debeku eta mehatxuen arduragabekeria mahai gaineen jarri behar da. Zalantza barik ez da gure eskualdeko herrietan bultzatzen dan jarduera, ez bendeja eta ez baserrietako jarduna, monokultibo eta esplotazio haundiak ez badira.

Eta ezaguna da, elikagai osasungarri, goxo eta ederrenak, naturalenak baserrietako ekoizpen txikerrenetatik jasotzen direla eta gure elikagaien subiranotasun jasangarria ez dela hormigoiez eta megaproiektuetan erein eta landatzen txikitik garatu eta bultzatu beharreko prozesu bat da, etorkizunak ere holan eskatzen duelako.

Areetako bendejerak, Algortako azokan izan diren bendejerak eta bestelakoak izan dira Getxon, Sopelako plazan, Plentzian, Erandion, Portugaleten, Mungian... Herri batzuetan udaletik laguntza eta bultzadatsuak egon dira hori kultura mantendu dadin. Beste batzuetan traba bat izango balira bezela jaso eta tratatu izan da, eta tamales hau de Algorta, Erromo eta Areetako adibidea.

Beraz, bada garaia (inoiz ez delako berandu) jarduera honek bideratzeko laguntzak eta babesa emotea, duda barik baserri edo lurra lantzeak ez dira diruz aberasteko proiektuak izaten baina bai gizatasunez duintasunez eta bizitzeko bideragarritasun minimo bati helduak.

Traba gehiagorik ez mesedez.

Artikuloen berrikuskapen zehatzetan ez naiz oin momentuan sartuko, denbora falta dudalako.

Baina jaso dezazuen, orain urte bi baino gehiago dira uribekostako agroasanbladaren idazki bat bideratu genuela Getxoko udaletxean eta gaur arte ez dogula inongo erantzunik jaso.

Oraingo honetan zentzuzko prozesu bat bideratu, aukerak zabaldu eta ganorazko zeozer egiteko ordua deritzogu.

Eskerrik asko arreta eta denboragatik.”

Alegazio hori garaiz kanpo egin zen. Horren bidez, interesdunak Udalak salmentan laguntzea edo bendejarekiko aldeko jarrera izatea eskatu zuen, baina ez zuen ordenantza egiteko proiektuan sartzeko moduko proposamen zehatzik egin, eta, beraz, nahiz eta kontutuan hartu, ez da aztertu behar.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- Kontsulta publikoaren izapidea egiteko Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 133. artikuluan xedatzen duena aplikatu da.

II.- Txosten honen xedea da aurkeztutako ekarpenak jaso eta aztertzea, kalez kaleko salmentari buruzko ordenantza berria egiteko proiektuan sartzeko.

III.- Egindako ekarpenak honako alderdi hauetan oinarritzen dira:

- a) Kalez kaleko salmenta baimen-erregimenaren mende ez egotea, alde aurreko jakinarazpen-erregimenaren mende baizik.
- b) Erabilera publikoko leku edo espazio jakinetan gehienez ere asteko lau egunetan aldizkako merkatuak egiteko aukera ezartzea.
- c) Leku edo espazio jakinetan egiten diren maiztasun finkoko aldizkako merkatuak eratzeke, gutxienez kalez kaleko salmentako 10 postu edo gehiago pilotatzeko baldintza betetzea.

- d) Ordenantzaren 4. artikuluko 2. puntua ezabatzea.
- e) Gune publikoetan modu berezian kokatutako toki finkoei eta desmuntagarriei ekoizpen propioa (nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak) elikagaiak kalez kale saltzeko baimena emateko aukera aztertzea, aldizkako merkatu tradizional batekin edo azokak, jaiak edo herri-ekitaldiak direla-eta noizbehinkako merkatuekin lotuta egon beharrik gabe. (Proposamen honek ordenantzaren 7. eta 11. artikuluetan proposatutako aldaketak biltzen ditu).
- f) Baimena lortzeko, interesdunak alde aurretik jakinarazi behar izatea, udaleko alkateari alde aurretik eskaera egin beharrean.
- g) Aurretiazko jakinarazpenak ebazteko gehieneko epea hurrengo 5 egun baliodunetan ezartzea (P.F.-k egindako proposamenaren arabera) edo hurrengo 15 egun baliodunetan ezartzea (I.G.P.-k egindakoaren arabera). Era berean, epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, administrazio-isiltasuna positibotzat jotzea.
- h) Ordenantzaren 21. artikuluko 2. paragrafoa ezabatzea.
- i) Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen kalez kaleko salmenta ekoizleei bakarrik baimentzea.
- j) Bertako produktu osasungarrien salmenta legeztatzea.

Udalaren osoko bilkurak Kalez kaleko salmentaren Ordenantza onartu edo aldatzeko ahalmena du, toki-erakundeek kalez kaleko merkataritzaren arloan duten erregelamendu-ahalmena aplikatuz. Ahalmen hori 25.2.i) artikuluan dago aitortuta, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.d) eta 25.3 artikuluekin lotuta, eta Merkataritza Jardueraren maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoa garatuz, zeina ekainaren 25eko 7/2008 Legeak aldatu baitzuen.

Ido horretan, gogorarazi behar da aipatutako Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 16. artikulua udalei aukera ematen diela beren udalerriko kalez kaleko salmenta arautzeko, betiere ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badituzte eta, beraz, araudi sektorial horren eduki materiala urratzen ez badute.

a) Kalez kaleko salmenta alde aurreko jakinarazpen-erregimenaren mende egoteko aukerari dagokionez.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeko 84. artikuluan ezartzen denez, agintaritzak eskudunak emandako titulu bat lortu behar da jabari publikoko ondasunak okupatzeko edo, hala badagokio, jabari publikoko ondasunak guztiei dagokien erabilera-eskubidea gainditzeko moduan erabiltzeko baimena izateko. Era berean, ezartzen da jabari publikoko ondasunen gaineko kontzesioak eta baimenak, lehenik eta behin, horiek arautzen dituen legeria bereziaren arabera arautuko direla, eta, arau berezirik ez badago edo nahikoak ez badira, aipatutako legean xedatutakoaren arabera.

Hala, aplikatzekoa den lege sektorialak, Merkataritza Jardueraren 7/1994 Legeak, 15. artikuluan honela definitzen du kalez kaleko salmenta: Kaleko salmenta da merkataritza-establezimenduetatik kanpo, postu edo instalazio desmuntagarrietan zein ibilgailuetan, egindakoa; gainera, salmenta gune publikoetan eginez gero, dagokion baimena izatea beharrezkoa izango dela ezartzen du.

Era berean, Txikizkako merkataritza antolatzekeko urtarilaren 15eko 7/1996 Legearen 54. artikulua arabera (lege hori martxoaren 1eko 1/2010 Legeak aldatu zuen, eta IV. kapituluaren aldaketak egin zituen kalez kaleko salmentari edo salmenta ez-sedentarioari dagokionez), udalei dagokie beren udal-mugarteetan garatzen den kaleko salmentan aritzeko baimenak ematea, beren arau espezifikoekin eta indarreko legerian jasotakoekin bat etorritik, dagokien eskumen-esparruaren arabera. Aurrekoa gorabehera, baimen kopurua mugatua da horretarako gaitutako lurzoru publikoen eskasiagatik; ondorioz, horrek interesdunak dagokion udal-baimena lortu behar izatea justifikatzen du, kaleko salmenta espazio publikoan egiten den kasuetan, alde aurreko eskaera eginez eta horretarako ezarritako prozeduraren arabera.

Egindako proposamena aztertu ondoren, onduzotatu da kalez kaleko salmenta ezin dela alde aurreko jakinarazpenaren erregimenaren mende egon, aipatutako legeek ezarritakoa urratuko lukeelako.

b) Erabilera publikoko leku edo espazio jakinetan gehienez ere asteko lau egunetan aldizkako merkatuak egiteko aukerari dagokionez.

Horri dagokionez, adierazi behar da Merkataritza Jardueraren Legeko 16.1 artikulua kalez kaleko salmenta-mota desberdinen ezaugarriak ezartzen dituela, eta a) atalean ezartzen dituela aldizkako merkatuei dagozkienak, leku edo gune jakinetan kokatutakoak eta maiztasun finkokoak:

“a) Aldizkako merkatuak, ohikoak zein ezarpen berrikoak, leku edo gune jakinetan kokatutakoak eta maiztasun finkokoak. Horiek astean bi aldiz antolatu ahal izango dira gehienez.”

Aurrekoa ikusita, esan genezake egindako proposamenak gainditu egiten duela kalez kaleko salmentako esparrua; izan ere, indarrean dagoen arau sektorialak salmenta-mota hori astean gehienez ere bi egunetan egin daitekeela mugatzen du. Epe hori gaindituz gero, beste kasu baten aurrean egongo ginateke; hain zuzen ere, merkatu egonkorreko edo iraunkorreko salmentaren aurrean. Halaber, Merkataritza Jardueraren Legearen mende egongo litzateke, nahiz eta III. tituluaren xedatutako arautetik salbuetsita egon (salmenta-jardunbide bereziei buruzkoa da, kalez kaleko salmentaren gisakoak), bai eta aplikatu beharreko gainerako araudi espezifikoak ere (merkatuaren funtzionamendu-erregelamendua...).

Beraz, horrelako merkatuak ezin dira astean lau egunetan ospatu, aipatutako arauak ezarritakoa urratuko lukeelako.

c) Leku edo espazio jakinetan egiten diren maiztasun finkoko aldizkako merkatuak eratzeko, gutxienez kalez kaleko salmentako 10 postu edo gehiago pilatzeko baldintza egoteko aukerari dagokionez.

Jarduera Ekonomikoaren Legeak ez du aldizkako merkatu deritzenak eratzeko gutxienezko postu-kopuru jakin bat pilatzeko beharra ezartzen. Hala ere, esan behar da espazio publikoa erabiltzeko baimenak udalaren ahalmeneko egintzak direla, eta, beraz, proposatutako merkatu-motaren eta merkatua egin nahi den espazio publiko zehatzaren ezaugarriak kontuan hartuta, Udalak ahalmena duela egingo den lekua eta hura osatuko duten postuen kopurua xedatzeko. Kopurua proposatutakoa baino txikiagoa izan daiteke, arrazoi teknikoengatik, interes publikoagatik eta aplikatzeko den araudiak zehazten dituen bestelako arrazoiengatik, bai eta espazio publikoak zentzuz erabiltzeko ere.

Era berean, Txikizkako merkataritza antolatzeko urtarilaren 15eko 7/1996 Legearen 54. artikulua (martxoaren 1eko 1/2010 Legeak aldatu zuen) ezartzen du Udalak gune jakin batean merkatu bat antolatzeko baimen eskuragarrien gehieneko kopurua muga dezakeela, horretarako gaitutako lurzoru publiko eskasa dela-eta.

Azaldutako arrazoi bide juridikoan oinarrituta, onduzotatu da Udalak ahalmena duela merkatu bakoitzean, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, baimendutako gehieneko postu kopurua finkatzeko, baina ez gutxienezko kopurua finkatzeko.

d) Kalez kaleko salmentari buruzko Ordenantzaren 4. artikuluko 2. puntua ezabatzeari dagokionez.

Ordenantzaren 4. artikuluan honako hau xedatzen da:

“4. artikulua. Leku jakinetan ezartzen diren aldizkako merkatuak.

1. Merkatu-mota horretakoak dira kalez kaleko salmenta egiten den postu-

kontzentrazioak. Maiztasun finkoz egiten dira eta bide publikoko espazio jakin batzuetan jartzen dira.

2. Getxoko udalerrian halako kalez kalez kaleko salmentarik ez dagoenez, ez da baimenik emango mota horretako merkatuetarako, osoko bilkurak kontrakorik erabaki ezean. Osoko bilkurak erabaki hori hartuz gero, ordenantza aldatzea ekarriko luke, Getxon baimendutako kaleko salmenta-mota berri hori arautzeko”.

Gaur egunera arte, ez da halako salmenta-motarik baimendu Getxon, ez baitzen existitzen. Hala ere, ordenantza indarrean sartu zenetik gauraino, udalerriko behar sozioekonomikoak aldatu egin dira.

Kontsulta Publikoaren izapidean argitaratutako iragarkian azaldu zen bezala, kalez kaleko salmentari buruzko ordenantza berriaren proiektuaren helburua, besteak beste, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek eta merkataritza-jardueran inplikaturako pertsonen mota horretako merkatua sortzeko egindako eskariari erantzuna ematea da.

Proposamen hau egitean eskaera hori jakinarazi denez, eta, beraz, merkatu mota horiek arautzeko beharra dagoela jakinarazi denez, ondorioztatu da Udalak eskumena duela merkatu horiek arau-proiektuan sartzeko erabakia hartzeko; hala balitz, proposamen hori ordenantza berri bat indarrean jartzean gauzatuko litzateke.

- e) **Gune publikoetan modu berezian kokatutako toki finkoei eta desmontagarriei ekoizpen propioak (nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak) elikagaiak kalez kale saltzeko baimena emateko aukerari dagokionez. Egoera eta baldintza zehatzetan baimenduko dira, aldizkako merkatu tradizional batekin edo azokak, jaiak edo herri-ekitaldiak direla-eta noizbehinkako merkatuekin lotuta egon beharrik gabe.** (Proposamen honek ordenantzaren 7. eta 11. artikuluetan proposatutako aldaketak biltzen ditu).

Ildo horretan, esan behar da Merkataritza Jardueraren 7/1994 Legeak toki-esparruko kaleko salmenta arautzen duela, eta 16. artikuluan honako hau ezartzen duela:

“16. artikulua. Kalez kaleko salmenta arautzea.

1. Udalek kaleko salmenta arautu ahal izango dute beren udalerrietako lurraldean. Udal-araudian lekuak, salmentarik gabeko perimetroak, aldizkakotasuna, ordutegia eta baimendutako produktuak zehatzuko dira eta kaleko salmenta-moten ezaugarriak jasoko dira, honako hauek bereizita:
 - a) Aldizkako merkatuak, ohikoak zein ezarpen berrikoak, leku edo gune jakinetan kokatutakoak eta maiztasun finkokoak. Horiek astean bi aldiz antolatuta ahal izango dira gehienez.
 - b) Feriak, jaiak, herriko ospakizunak direla eta, noizean behin ezartzen diren azokak.
 - c) Denda-kamioietan edo kaleetan jartzen diren postuetako salmentak, egoera eta baldintza jakinetan baimendutakoak.
2. (...).”

Artikulu horrek ezartzen duenez, Udalak izango dira beren mugarteko kalez kaleko salmenta arautuko dutenak, eta, horretarako, salgai egongo diren produktuak, zeinak indarrean dagoen araudiak baimendutako artean egon beharko duten, eta produktu horiek merkaturatzeko erabiliko den salmenta-mota zehaztu beharko dituzte. Hala ere, arauak ez ditu salgai egon daitezkeen produktuak salmenta-modu edo -mota jakin batekin lotzen; ez dirudi horri buruzko berriazko betebeharririk dagoenik, eta, beraz, udal bakoitzak aukera du, bere ahalmen-esparruaren baitan, produktu bakoitza merkaturatzeko moduari buruz erabakitzeko.

Beraz, Udalak ahalmena du salgai egongo diren produktuei buruz eta horiek merkaturatzeko moduei buruz erabakitzeko. Hori dela eta, kasu bakoitzaren eta, zehatzago, egindako proposamenaren balioespen xehatua egongo da.

- f) **Baimena lortzeko interesdunak alde aurretik jakinarazteko aukerari dagokionez, udaleko alkateari alde aurretik eskaera egin beharrean.**

Proposamen hori txosten honetako a) atalean ebatzi da.

- g) Aurretiazko jakinarazpenak proposatutako 5 edo 15 eguneko epean ebazteko aukerari eta epe hori igarota agintaritza eskudunak berariazko ebazpenik eman ez badu, administrazio-isiltasuna positibotzat hartzeko aukerari dagokionez.**

Lehenik eta behin, a) atalean azaldutako arrazoibide juridikoaren arabera, esan behar da kaleko salmenta egiteko jabari publikoko ondasunak okupatzeko baimena ematen duen titulua lortzeko baimen-erregimena bete beharko dela, eta, horrenbestez, interesdunak aldeztu aurretik eskaera aurkeztu beharko duela.

g.1) Ebazteko eta jakinarazteko epeari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 30/2015 Legearen (APEL) 21. artikulua honako hau ezartzen du:

“21. artikulua. Ebazteko betebeharra.

- 1. Administrazio publikoa behartua dago berariazko ebazpena eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.
(...)*
- 2. Berariazko ebazpena jakinarazteko egongo den gehieneko epea, dagokion prozedura arautzen duen arauan ezarritakoa izango da.
Epe hori ezin da sei hilabete baino gehiago izan, non eta lege-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.*
- 3. Prozeduren arauetan ez bada gehieneko eperik finkatzen, epe hori hiru hilabetekoa izango da. (...)*”

Artikulu hori aplikatuz gero, posible da etorkizuneko ordenantzen proiektuak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epe bat xedatzea prozedurari dagokionez, edozein dela ere prozedura hasteko modua; epe hori ez da inola ere sei hilabetetik gorakoa izango. Era berean, epe hori ez zehaztea gerta daiteke; kasu horretan, ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango litzateke.

Beraz, aipatutako marjinaren barruan, Udalak egoki iritzitako epea finkatzeko ahalmena du, baita eperik ez finkatzekoa ere; ondorioz, kasu bakoitza banan-banan baloratuko da.

g.2) Administrazio-isiltasuna positibotzat jotzeko proposamenari dagokionez, baldin eta ebazteko ezarritako gehieneko epea igaro bada berariazko ebazpenik eman gabe, gogorarazi behar da administrazio-isiltasunak sortzen dituen ondorioak APELen 24. eta 25. artikuluetan araututa daudela. Artikulu horiek honako hau ezartzen dute:

“24. artikulua. Administrazio-isiltasuna interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan.

- 1. (...)*
- 2. Isiltasunak ezespenez balioa izango du konstituzioaren 29. artikulua aipatzen duen eske-eskubideaz baliatzeari buruzko prozeduretan, baiestearen ondorioz eskatzaileari edo hirugarren batzuei jabari publikoaren edo zerbitzu publikoaren gainerako ahalmenak eskuratuko litzaizkiokeen prozeduretan, ingurumenari kalte egin diezaioketen jarduerak egitea dakartenetan eta administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan.*

25. artikulua. Berariazko ebazpen eza ofizioz hasitako prozeduretan.

- 1. Ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epean berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez izateak ez du administrazioa salbuesten ebazteko betebeharrak legezketatik, eta honako hauek izango dira ondorioak:*
 - a) Eskubideak aitortzea edo aldeko beste egoera juridikoren batzuk sortzea erator*

daitekeen prozeduretan, agertu diren interesdunek administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ditzakete beren uziak.”

Espazio publikoetan kalez kaleko salmenta egiteak berekin dakar bai okupatzea, bai eta interesdunak jabari publikoko ondasunen aprobetxamendu berezia eskatzen duen erabilera egitea ere, eta, beraz, administrazioaren baimenarekin, eskatzaileari jabari publikoari dagozkion ahalmenak eskualdatzen zaizkio. Horregatik, kasu horretan, ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, isiltasunak ezespen-ondorioak izango ditu, prozedura hasteko modua edozein izanda ere.

Beraz, aurrekoa kontuan hartuta, ezin da administrazio-isiltasunaren ondorioa positiboa izatea ezarri, APELeke xedatutakoa urratuko lukeelako.

h) Ordenantzaren 21. artikuluko 2. paragrafoa ezabatzeari dagokionez.

21. artikuluko 2. paragrafoak honako hau ezartzen du: “Ezin izango zaio titular berari, epe beraren baitan, kalez kaleko salmenta egiteko baimen bat baino gehiago eman”.

Bestalde, Merkataritza Jardueraren maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak ez du mugarik ezartzen ildo horretan.

Hala ere, azaldu denaren arabera, espazio publikoetan kalez kaleko salmenta egiteak berekin dakar interesdunak jabari publikoko ondasunak okupatzea, erabiltzea edo modu berezian aprobetxatzea, eta, beraz, udalaren ahalmeneko egintza da baimena ematea. Horrela, Udaleko osoko bilkurak kalez kaleko salmentako postuen gehieneko kopurua mugatu ahal izango du, arrazoi teknikoengatik, interes publikoko arrazoiengatik eta indarrean dagoen araudiaren arabera aplikatzekoa den beste edozein arrazoiengatik.

Hala, merkatu batean edo bestelako salmenta-mota batean parte hartzeko eskaria horretarako gaitutako postuak baino handiagoa izango balitz, Udalak, helburu horretarako argitaratuko lukeen prozeduraren deialdia arautuko luketen oinarrietan, titular edo produktu mota bakoitzeko baimen bat ematea mugatu ahal izango luke, ahalik eta titular gehienek parte hartzea bermatzeko. Era berean, postu hutsik balego, bigarren postu bat lortzeko aukera xedatu ahal izango litzateke, betiere nazionalitateagatik, bizilekuagatik edo egoitzagatik diskriminaziorik ez egotea bermatuz. Hori guztia kasu bakoitzaren ezaugarri zehatzen eta kasuan kasuko merkatuak edo salmentak lortu nahiko lituzkeen helburuen arabera aztertuko litzateke.

Beraz, arauaren zerizana salerosleek merkatura sartzeko duten gaitasuna mugatzea ez bada ere, Udalak, salbuespen gisa eta behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoak edo interes publikokoak direla medio (kasu zehatz bakoitzean aztertu beharko dira), titular edo produktu bakoitzeko postu-muga bat ezarri ahal izango luke, horiek eskuratzeko lehentasun-irizpide batzuk ezarriz, eta betiere argitaratuko litzatekeen prozeduraren deialdia arautuko luketen oinarrietan ezarritako interes orokorraren xedarekin bat etorritz. Horrenbestez, egindako proposamena baloratuko da.

i) Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen kalez kaleko salmenta ekoizleei bakarrik baimentzeko aukerari dagokionez.

Merkataritza Jardueraren maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak ez du azaldutako kasua arautzen, eta, beraz, ez du mugarik ezartzen ildo horretan.

Bestalde, Txikizkako merkataritza antolatzeke urtarilaren 15eko 7/1996 Legearen 54. artikuluko (lege hori martxoaren 1eko 1/2010 Legeak aldatu zuen, eta IV. kapituluaren aldaketak egin zituen kalez kaleko salmentari edo salmenta ez-sedentarioari dagokionez), honako hau ezartzen du: “Udalei egokituko zaie beren udal-mugarteetako kaleko salmentan aritzeko baimenak ematea, beren arau espezifikoei eta indarreko legerian jasotakoekin bat etorritz, dagokien eskumen-esparruaren arabera”. Era berean, honako hau ezartzen du: “Hautagai

posibleak aukeratzeko prozedurak gardentasuna eta inpartzialtasuna bermatu beharko ditu, eta, zehazki, prozesuaren hasieraren, garapenaren eta amaieraren publikotasun egokia”.

Beraz, Udalek, beren eskumen-esparruaren baitan, merkatuan edo salmenta zehatzean parte hartuko duten hautagai posibleak aukeratzeko erabilitako prozedura zehaztu ahal izango dute. Prozedura horrek, nolanahi ere, lehia-erregimen lehiakorra errespetatuko du, eta gardentasunaren, inpartzialtasunaren, diskriminaziorik ezaren eta publikotasunaren printzipioak bermatuko ditu. Prozedura hori irizpide argi, erraz, objektibo eta auresangarrien arabera izapidetu beharko da.

Kalez kaleko salmentaren profesionalizazio handiagoa, kontsumitzaileen babesa, gizarte-politikaren helburuak, tokiko kultura-ondarearen kontserbazioa, ingurumenaren babesa eta interes orokorreko premiazko beste edozein arrazoi kontuan hartuta, Udalek, helburu horretarako argitaratuko duten lehia-prozedurarako deialdiaren oinarri arautzaileetan, irizpide espezifikoak jaso ahal izango dituzte, hala nola, ekoizpen propioko nekazaritzako tokiko elikagaien salmenta, betiere nazionalitateagatik, bizilekuagatik edo egoitzagatik diskriminatu gabe.

Irizpide hori deialdiaren oinarri arautzaileetan sartzeko, beharrezkoa da Udalak argi eta zehatz zehaztea zein den antolatu nahi den azoka edo merkatuarekin lortu nahi den helburua, esaterako, sustatuko diren produktuak aipatuz (zirkuitu laburreko produktuak, hurbilekoak, kalitatezkoak, ekoizpen iraunkorrekoak...), bai eta azoka udalerrian antolatzearen bidez lortu nahi den eragina ere, esleipen-irizpideek modu eraginkorrean erantzuteko. Horrela, salmenta esparru jakin batera mugatzea justifikatuta geratuko litzateke, betiere saltzailearen nazionalitateagatik, bizilekuagatik edo egoitzagatik diskriminaziorik egon gabe.

Beraz, produktu jakin batzuen kaleko salmenta ekoizleek berek bakarrik egitea arautu liteke, betiere baldintza hori ez bada diskriminatzailea saltzailearen nazionalitateagatik, bizilekuagatik edo egoitzagatik, interes orokorreko premiazko arrazoi batengatik justifikatuta badago, eta azoka edo merkatu edo salmenta zehatzarekin lortu nahi den helburuarekiko eta eraginarekiko proportzionala bada. Horrez gain, behar bezala arrazoituta egon beharko da baldintza horiek ezartzen dituen araudian. Hortaz, egindako proposamena baloratuko da.

j) Bertako produktu osasungarrien salmenta legeztatzea.

Proposamen hori txosten honetako e) atalean ebatzi da.

Egin diren proposamenak aztertuta eta indarreko araudia urratzen dutenak alde batera utzita, adierazten da proposamen horiek kalez kaleko salmentari buruzko ordenantza berriaren proiektuan sartzea Udaleko osoko bilkurari dagozkion eskumenen baitan dagoela, eta, beraz, aukera-erabakia dela.